

Nafarroako Unibertsitatea
Zientzietako Fakultatea

Universidad de Navarra
Facultad de Ciencias



Sinterizazio-Atmosferaren eragina M graduko (ASP 30)
Altzairu Laster baten dentsifikazio eta propietate mekanikoetan

Influencia de la atmósfera de sinterización en la densificación y las
propiedades mecánicas de un acero rápido de grado M (ASP 30)

Zientzian Doktore maila lortu asmoz
IDOIA URRUTIBEASKOA IRALA
andereak aurkezten duen
MEMORIA

MEMORIA
que para optar al Grado de Doctor en Ciencias
presenta
IDOIA URRUTIBEASKOA IRALA

DONOSTIA, 1992-KO MAIATZA

Javiri

*neuk baino ondiokan
poza haundiaua
hartu dauana.*

*eta nerekin izan zarien
lagun guztioi*

ESKERRAK

Lan hau burutua izan baldin bada, pertsona eta erakunde hauei esker izan da:

Batez ere, J. Urcola Galarza Doktoreari, zeinek bere jakintasuna eta laguntza eskaini dizkidan, bai arazo teknologiko eta zientifikoetan bai adiskidetzat hartuz. Berarengatik izan ez balitz, lan hau inoiz ez litzateke burutuko.

Altzairu Lasterreko talde osoari: V. Martínez Doktoreari, zeinak metalurgiaren edertasuna ikusten erakutsi zidan; R. Palma Doktoreari, bere ikerketa bizi zuena; S. Jauregi Jaunari, azken urtetako adiskidea, hainbeste ordu pasatu ditugu elkarrekin "zergatik?" guztien bila, eta iritsi "berri"-ei, S. Talacchia Andereñoa eta I. San Martín Jaunari, argazkilari habilak; azkenik, X. Urzelai eta G. Solana Jaunei, gure lanaren jarraitzaileak.

J.M. Rodríguez Doktoreari, propietate mekanikoak aztertzen lagundu zidana eta euskara-arazoetan aholkularia izan dena.

A.S. Wronski Professorari, nigan izan duen interesarengatik eta saiakuntza mekanikoen azterketan eskaini zidan laguntzagatik.

K. Ostolaza Jaunari, nirekin izan dena hasiera-hasieratik, gauza on eta txarretan, fase guztiak nirekin batera bizitzen eta ilusioa ematen.

C.E.I.T.-eko ikertzailei, zekitenean lagundu didatenak eta askotan animatu nautenak.

Nire ikaskideei, nirekin sofritu eta poztu direnak, elkarrekin hainbeste gauza ikusi, egin eta pasatu ditugunak.

Gainontzeko pertsonalari, elkarrekin izan ditugun harremanak gizatartu egin bait dute nire ikertzaile-heziketa.

Nire ondoan izan ditudan guztiei, C.E.I.T.-etik kanpo eta barnean, beren ardura adierazi didatelako eta doktoradutzaren faseak jasan dituztelako.

Euskal Jaurlaritzari eta C.E.I.T, tesiaren iraopenaren zehar eman didaten laguntza ekonomikoarengatik.

Eta azkenik, zerrenda honetan agertzeko merezimendu guztiak izan arren, aipatuak izan ez direnei.

Guztiei adierazi nahi diet nire esker beroenak.

AGRADECIMIENTOS

Si este trabajo se ha concluido ha sido gracias a:

Ante todo, al Dr. J. Urcola Galarza, quien me ha ofrecido en todo momento su sabiduría y su ayuda tanto ante los problemas tecnológicos y científicos que me han surgido como con su apoyo humano. De no haber sido por él, este trabajo jamás se hubiese realizado.

A todo el grupo de Aceros Rápidos: al Dr. V. Martínez, que me enseñó a apreciar la belleza en la metalurgia; al Dr. R. Palma, que vivía la investigación; al Sr. S. Jauregi, compañero en los últimos años, con quien tantas horas he pasado en busca de los "por qué?", y a los "recien" llegados, Srta. S. Talacchia y Sr. I. San Martín, hábiles fotógrafos; finalmente, los Srs. X. Urzelai y G. Solana, continuadores de nuestro trabajo

Al Dr. J.M. Rodríguez, que me ayudó a analizar las propiedades mecánicas y fue mi consejero en las cuestiones relacionadas con el euskera.

Al Professor A.S. Wronski, por el interés mostrado y la ayuda que me ofreció en el análisis de los ensayos mecánicos.

Al Sr. K. Ostolaza, que ha estado conmigo desde el principio, en lo bueno y en lo malo, viviendo conmigo todas las fases y transmitiéndome ilusión.

A los investigadores del C.E.I.T., que me han ayudado en lo que en lo que sabían y me han animado muchas veces.

A mis compañeros, que han sufrido y se han alegrado conmigo y con quienes tantas cosas he compartido.

Al personal no investigador, pues su relación conmigo ha humanizado mi formación investigadora.

A cuantos han estado junto a mí, tanto dentro como fuera del C.E.I.T., me han expresado su preocupación y han soportado las fases del doctorado.

Al Gobierno Vasco y al C.E.I.T., por la ayuda económica que me han dado a lo largo de la duración de la tesis.

Y finalmente, a cuantos, injustamente, no aparecen en esta lista.

A todos ellos quiero expresar mi más sincero agradecimiento.

"SINTERIZAZIO-ATMOSFERAREN ERAGINA M GRADUKO (ASP 30) ALTZAIRU
LASTER BATEN DENTSIFIKAZIO ETA PROPIETATE MEKANIKOETAN".

LABURPENA

Bi M graduko tresneriarako altzairu lasterren, Px30 eta Px30S deritzenak, sinterizazio eta tratamendu termikoen aurreko portaera eta propietate mekanikoak aztertzen dira.

Sinterizazioaren ikerketarako sinterizazio-tenperatura eta -atmosferaren eta hautsei egindako % 0.2 C elementalaren gehikuntza izan ziren kontutan, sinterizazio-denbora 60 min.-zkoa zelarik. Kontutan hartutako atmosferak hutsea eta gas-nahasi industrialak izan ziren, azken hau % 90N₂, % 9 H₂ eta % 1 CH₄ -koa zelarik.

Dentsitate teorikoaren % 99-ko dentsifikazioak lortu ziren. Dentsitate hau lortzeko behar zen tenperatura beherena (Sinterizazio-Temperatura Optimoa) bi altzairuetan 25-30°C txikiagoa zen gasean sinterizatzean hutsean egitean baino. Grafito-gehikuntzak ere STO delako hau jeitsi egin zuen, 10-15°C hutsean eta 20-25°C gasean.

Altzairuen nitrogenazioaren beste ondorio batzu hondar-austenita kopuruaren handitzea (% 10-etik 60-etara) eta MC Banadiozko karburoen Karbono-edukinaren zati baten Nitrogenozko ordezkapena, Banadiozko karbonitruoak sortzen zirelarik, izan ziren. Karbonitruo hauek MC-ak baino xeheagoak eta sakabanatuagoak dira, eta gasean gain-sinterizatzean ale-hazkuntza eragozten dute.

Eragin hau da, eutektikoen agerpenaren atzerapenarekin bat, "sinterizazio-bitarte"-a zabaltzera daramana, gasean sinterizatutako altzairu lasterrak egokiak eginaz tenperatura-kontrol zehatza ez duten labeetan fabrikatuak izateko.

Tratamendu termikoak austenizazio eta tenplaketa eta ordu beteko iraketa hirukoitzatan datzate. Gogordura sekundarioaren tontorra gasean sinterizatutako laginetan hutsekoetan baino 85°C ere gorago gertatzen zen. Lortutako gogortasun gorena 1011 HV₁₀-koa izan zen gasean sinterizatutako Px30-ean eta 943 HV₁₀-koa hutsekoetan.

Haustura-zailtasuna neurtzeko Barker-ek proposatutako "v"-hozka duten probeta zilindriko motzeko metodoa erabili zen. % 40 γ_R -a zutenean tentsioen intentsitate-faktorea 18 MPa \sqrt{m} -ekoa izan zen Px30S-an eta 24 MPa \sqrt{m} -koa Px30 gasean sinterizatutakoetan. Hondar-

"INFLUENCIA DE LA ATMÓSFERA DE SINTERIZACIÓN EN LA DENSIFICACIÓN Y LAS PROPIEDADES MECÁNICAS DE UN ACERO RÁPIDO DE GRADO M (ASP 30)".

RESUMEN

Se analiza el comportamiento a sinterización y ante los tratamientos térmicos y las propiedades mecánicas de dos aceros rápidos de herramientas de grado M, Px30 y Px30S.

Para el estudio de la sinterización se tuvo en cuenta la temperatura y atmósfera de sinterización y el efecto de la adición de un 0.2 % C elemental a los polvos, siendo el tiempo de sinterización constante e igual a 60 min. Las atmósferas consideradas fueron vacío y mezcla gaseosa industrial, de composición 90 %N₂, 9 % H₂ y 1 % CH₄.

Se alcanzaron densificaciones del 99 % de la teórica, encontrándose que para ambos tipos de acero la temperatura mínima a la que se obtuvo dicha densidad (Temperatura Óptima de Sinterización) fue 25-30°C menor al sinterizar en gas que en vacío. También la adición de grafito redujo la TOS 10-15°C en vacío y 20-25°C en gas.

Otros efectos de la nitrogenación de los aceros fue el incremento en la cantidad de austenita retenida (de 10 a 60%) y la sustitución de parte del carbono de los carburos de vanadio, MC, por nitrógeno, produciéndose carbonitruros de vanadio. Estos carbonitruros, son más finos y dispersos que los MC e impiden el crecimiento de grano al sobresinterizar en gas.

Este hecho, junto con el retraso en la aparición de eutécticos lleva a una ampliación del rango o "ventana de sinterización", lo que hace a los aceros rápidos sinterizados en gas aptos para ser fabricados en hornos de control no muy estricto de temperaturas.

Los tratamientos térmicos consistieron en austenización y temple y revenidos triples de 1 hora cada uno. Se encontró que el pico de endurecimiento secundario se producía en las muestras sinterizadas en gas hasta a 85°C por encima del correspondiente a muestras sinterizadas en vacío. Las durezas máximas alcanzadas fueron de 1011 HV₁₀ para el Px30 sinterizado en gas y 943 HV₁₀ para el sinterizado en vacío.

Para medir la tenacidad a la fractura se utilizó el método propuesto por Barker con probetas cilíndricas cortas con entalla "chevron". Se encontró que para un 40 % γ_R el factor de intensidad de tensiones era de 18 MPa \sqrt{m} para el Px30S y de 24 MPa \sqrt{m} para el Px30 sinterizados en gas, mientras que cuando la cantidad de austenita retenida era de sólo el 5 %, $K_{IC} = 16$ MPa \sqrt{m} (Px30S) ó 13 MPa \sqrt{m} (Px30). En vacío no se obtuvo una variación tan grande de la cantidad de austenita retenida, con lo cual $K_{IC} \approx 15$ MPa \sqrt{m} (5 % γ_R , tanto para el Px30 como para el Px30S).

austenita kopurua % 5-ekoa bakarrik zenean, ordea, $K_{IC} = 16 \text{ MPa}\sqrt{\text{m}}$ -ekoa (Px30S) edo $13 \text{ MPa}\sqrt{\text{m}}$ -ekoa (Px30) bakarrik gertatu zen. Hutsean ez zen aurkitu honen hondar-austenita kopuruaren aldakuntza handia, beraz, $K_{IC} \approx 15 \text{ MPa}\sqrt{\text{m}}$ (% 5 γ_R , bai Px30-aren bai Px30S-aren kasuan).

Lau puntutako makurdura saiakuntzei dagokienean, hausturarekiko erresistentzian eragin gehien zuen parametroa materialaren akatsak zirela ikusi zen, hauek hutsuneak eta zikinkeria zirelarik bereziki. Hortaz, bai hasierako hautsen garbitasuna bai erabilera axolatia garrantzi handikoak dira material ona lortzeko.

Plastizidatea kontutan izan zen hausturarekiko erresistentzia kalkulatzeko, kontutan hartzen ez bazen lortzen zen erresistentzia (itxurazko erresistentzia) % 20-a ere handiagoa agertzen bait zen.

Isurpen-tentsioa, bestalde, hondar-austenita kopuruaren menpekoa da. Fase martentsitiko eta austinitikoak kontutan izanaz nahasi-lege bat aplikatuz martensitaren isurpen-tentsioa handiegia lortu zen, baina hondar-austenita kopuru handiagoetan lege hau egokia agertu zen.

Azkenik, hondar-austenita edukin handietan saturazio bat gertatzen zen, bai elastikotasun-moduluarena bai haustura-zailtasunarena, beste autorek ere aurkitu duten bezala.

En cuanto a los ensayos de flexión en cuatro puntos, se observó que el parámetro que más influía sobre la resistencia a la fractura eran los defectos del material, que fueron principalmente poros o impurezas. Por lo tanto, tanto la limpieza de los polvos de partida como el cuidado en su manipulación resulta de primordial importancia para la obtención de buen material.

Para el cálculo de la resistencia a la fractura se tuvo en cuenta la plasticidad, encontrándose que cuando ésta se ignoraba (resistencia aparente) la resistencia se sobreestimaba en hasta un 20 %.

La tensión de fluencia, por su parte, varía con la cantidad de austenita retenida. La aplicación de una ley de mezclas teniendo en cuenta las fases martensítica y austenítica subestima la tensión de fluencia de la martensita, siendo en cambio aplicable para mayores contenidos en austenita retenida.

Finalmente, se observó una cierta saturación para contenidos altos en austenita retenida tanto del módulo de elasticidad como de la tenacidad a la fractura, hecho que también otros autores han encontrado.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.	11
1.1 Potentzial ekonomikoa eta etekin industrialak.	13
1.2 Lanaren justifikazioa eta deskribapena.	15
2. Bilduma bibliografikoa.	19
2.1 Osagaiak.	19
2.2 Lorpena.	19
2.2.1 Lorpen tradizionala.	19
2.2.2 Hauts-metalurgia. Sinterizazioa.	20
2.3 Tratamendu Termikoak	22
2.3.1 Suberaketa.	22
2.3.2 Austenizazioa eta tenplaketa.	23
2.3.3 Iraoketa.	24
2.4 Propietate Mekanikoak.	25
2.4.1 Gogortasuna.	25
2.4.2 Hausturaren Mekanika Elastiko Linealaren aplikazioa.	26
2.4.2.1 Zailtasuna probeta trinkoetan.	26
2.4.2.2 Zailtasuna probeta zilindriko motzetan.	27
2.4.2.3 Hausturarekiko zailtasuna Altzairu Lasterretan.	30
2.4.3 Makurdurarekiko erresistentzia.	33
2.4.3.1 Lau puntutako makurdura-saiakuntza egoera elastiko eta plastikoan.	35
Irudiak.	41
3. Teknika Esperimentalak.	46
3.1 Hautsen karakterizazioa.	46
3.2 Nahasketa.	46
3.3 Trinkotzea.	46
3.4 Sinterizazioa.	47
3.5 Mikroegituraren behaketa.	48
3.5.1 Mikroskopia Optikoa.	48
3.5.2 Metalografia Kuantitatiboa.	48
3.5.3 Arakapenezko Mikroskopia Elektronikoa.	48
3.5.4 X-Izpiren difrakzioa.	49
3.6 Tratamendu Termikoak.	51
3.7 Saiakuntza Mekanikoak.	52
3.7.1 Gogortasun-saiakuntza.	52
3.7.2 Barker zailtasun-saiakuntza	52
3.7.3 Lau puntutako makurdura-saiakuntza.	54

ÍNDICE

1. Introducción.	11
1.1 Potencial económico y beneficios industriales.	13
1.2 Justificación y descripción del trabajo.	15
2. Recopilación bibliográfica.	19
2.1 Constituyentes.	19
2.2 Producción.	19
2.2.1 Proceso convencional.	19
2.2.2 Procesos pulvimetalúrgicos. Sinterización.	20
2.3 Tratamientos Térmicos.	22
2.3.1 Recocido.	23
2.3.2 Austenización y temple.	23
2.3.3 Revenido.	24
2.4 Propiedades Mecánicas.	25
2.4.1 Dureza.	25
2.4.2 Aplicación de la Mecánica Elástica Lineal de la Fractura.	26
2.4.2.1 Tenacidad en probetas compactas.	26
2.4.2.2 Tenacidad en probetas cilíndricas cortas.	28
2.4.2.3 Tenacidad a la Fractura en Aceros Rápidos de Herramientas.	31
2.4.3 Resistencia a la flexión.	33
2.4.3.1 Ensayo de Flexión en Cuatro Puntos en Régimen Elástico y Plástico.	36
Figuras.	41
3. Técnicas Experimentales.	46
3.1 Caracterización de polvos.	46
3.2 Mezcla.	46
3.3 Compactación.	46
3.4 Sinterización.	47
3.5 Observación microestructural.	48
3.5.1 Microscopía Óptica.	48
3.5.2 Metalografía Cuantitativa.	48
3.5.3 Microscopía Electrónica de Barrido.	48
3.5.4 Difracción de Rayos X.	49
3.6 Tratamientos Térmicos.	51
3.7 Ensayos mecánicos.	52
3.7.1 Ensayo de dureza.	52
3.7.2 Ensayo de tenacidad Barker.	52

Taulak.	58
Irudiak.	62
4.Emaitzak.	66
4.1 Sinterizazioa.	66
4.1.1 Px30 altzairua.	66
4.1.2 Px30S altzairua.	70
4.2 Tratamendu Termikoak..	74
4.2.1 Px30 altzairua.	74
4.2.2 Px30S altzairua.	76
4.3 Saiakuntza Mekanikoak.	79
4.3.1 Barker zailtasun-saiakuntza probeta zilindriko motzetan.	79
4.3.2 Lau puntutako makurdura-saiakuntza.	83
Taulak.	91
Irudiak.	99
5. Eztabaida.	143
5.1 Dentsifikazioa.	143
5.1.1 Sinterizazio-Tenperatura Optimoa.	143
5.1.2 Nitrogeno-zurgapena.	143
5.1.3 Partikula Primarioak: beren eragina hondar-austenitaren ale- hazkuntzan.	146
5.1.4 Fase eutektikoen sorkuntzarako tenperatura apalena.	148
5.1.5 Karburoen konposaketa elementu metalikoetan.	149
5.1.5.1 M_6C karburoak.	149
5.1.5.2 MC karburoak.	150
5.1.5.3 MX karbonitruoak.	151
5.1.6 Karburo eutektikoen konposaketa kimikoa.	151
5.2 Tratamendu Termikoak.	153
5.3 Saiakuntza Mekanikoak.	155
5.3.1 Hausturarekiko zailtasuna.	155
5.3.1.1 Gogortasunaren eragina.	155
5.3.1.2 Hondar-austenita kopuruaren eragina.	155
5.3.1.3 Haustura-gainazalak.	156
5.3.2 Lau puntutako makurdura-saiakuntza.	157
5.3.2.1 Isurpen-tentsioa.	157
5.3.2.2 Hausturarekiko erresistentzia.	159
5.3.2.3 Pitzaduraren tamaina kritikoaren eragina.	160
5.3.2.4 Young-modulua.	162
Taulak.	164

3.7.3 Ensayos de flexión en cuatro puntos.	54
Tablas.	58
Figuras.	62
4. Resultados.	66
4.1 Sinterización.	66
4.1.1 Acero Px30.	66
4.1.2 Acero Px30S.	70
4.2 Tratamientos Térmicos.	74
4.2.1 Acero Px30.	74
4.2.2 Acero Px30S.	76
4.3 Ensayos Mecánicos.	79
4.3.1 Ensayos Barker de tenacidad en probetas cilíndricas cortas.	79
4.3.2 Ensayos de flexión en cuatro puntos.	82
Tablas.	91
Figuras.	99
5. Discusión.	143
5.1 Densificación.	
5.1.1 Temperatura Óptima de Sinterización	143
5.1.2 Absorción de nitrógeno.	143
5.1.3 Partículas Primarias: su efecto en el crecimiento de grano de la austenita retenida.	146
5.1.4 Temperatura mínima para la aparición de fases eutécticas.	148
5.1.5 Composición en elementos metálicos de los carburos.	149
5.1.5.1 Carburos M_6C .	149
5.1.5.2 Carburos MC.	150
5.1.5.3 Carbonitruros MX.	151
5.1.6 Composición química de los carburos eutécticos.	152
5.2 Tratamientos Térmicos.	153
5.3 Ensayos Mecánicos.	156
5.3.1 Tenacidad a la fractura.	156
5.3.1.1 Influencia de la dureza.	156
5.3.1.2 Influencia de la cantidad de austenita retenida.	156
5.3.1.3 Fractografía.	157
5.3.2 Ensayo de flexión en cuatro puntos.	158
5.3.2.1 Tensión de fluencia.	158
5.3.2.2 Resistencia a la fractura.	159
5.3.2.3 Efecto del tamaño crítico de grieta.	160
5.3.2.4 Módulo de Young.	162

Irudiak.	173
6. Ondorioak.	175
7. Iradokizunak.	177
Bibliografia.	179
Argitarapenak.	181

Tablas.	164
Figuras.	173
6. Conclusiones.	175
7. Sugerencias.	177
Bibliografía.	179
Publicaciones.	181

1. ATALA: SARRERA.

CAPÍTULO 1: INTRODUCCIÓN.

1. SARRERA

1975.ean hasita, hotzetako trinkotzea eta hutseko sinterizazioaren bidezko Hauts-Metalurgiaren teknikak altzairu lasterrezko piezak bukaerako formatan lortzea erraztu du (hala nola, tresneria, matrizeak eta plakatxoak); erraztasun hori dela eta, Hauts-Metalurgiak galdaketa eta forjaketaren bidez lortutako altzairu konbentzionalen merkatuaren zati handi bat hartu du. Sinterizazio zuzenak abantaila ekonomikoak ditu Berotako Trinkotze Isostatikoaren aurrean, mikroegitura larriagoa lortzen bada ere. Hutseko sinterizazio zuzenaz lortutako tresneriarako altzairu lasterren portaera konposaketa berdineko galdaketa eta forjaketaren bidez lortutako altzairu konbentzionalenaren antzekoa da termikoki tratatzen direnean, eta beraien propietate mekanikoak eta portaera ebaketan gutxienez parekoak dira. Altzairu Lasterren ohizko sinterizazio-tenperatura gutxienez 1240°C-koa da hutsean; tenperatura hori 1150°C-tara (edo gutxiagotara) jeisterik balego, sinterizazioa labe jarraietan egin ahal izango litzateke, honek ekarriko lituzkeen abantaila ekonomiko, teknologiko eta metalurgikoekin.

Helburu honi bi hurbiltze egiten ari zatzaizkio: konposaketa aldatu sinterizazio-bitarte (hau da, dentsitate totala lortzeko gai diren tenperatura-tartea) zabalagoak lortu asmoz, 1150°C-tara iritsiko liratekeenak eta konposaketa komertzialezko altzairuak Nitrogenokopuru handiko atmosferatan sinterizatzea. Bradford-eko Unibertsitateak ekin dio lehenengo hurbilketari, azkena, aldiz, CEIT-ean hasi zen. Zera aurkitu zen, hutsean beharrean $N_2-H_2-CH_4$ -atmosferatan sinterizatzean tresneriarako altzairuen sinterizazio-tenperaturek jeitsiera nabariak zituztela. Zenbait materialen sinterizazio arrakastatsuek lortu dira, adibidez, T42-a 1180°C-tan sinterizatu da, hutsean, berriz, 1235°C behar dira.

Sinterizazio-tenperaturaren jeitsiera hau disolbaturiko Nitrogenoak solidus-tenperaturan duen eraginagatik omen da. Sinterizagarritasun eta solidus-lerroaren arteko koerlazioa, fase-diagramaren γ +karburo+L eremuarekin, alegia, dagoeneko ezaguna da altzairu laster konbentzionaletan eta badirudi mantentzen dela karburoak karbonitruoek ordezkatuak direnean. Nitrogenoaren presentziak sinterizatu ondorengo hondar-austenita kopurua hutsean sinterizatutakoetan baino altuagoa izatea eragiten du, iraoketa-tenperatura altuagoak eskatuz gogortasun gorena lortzeko. Dena den, ez da Nitrogeno guztia austenitan disolbatzen sinterizazioan zehar: MC karburoak oso karbonitruo xeheak bihurtzen dira, Banadio asko dutenak eta ez direnak hazten gain-sinterizatzean.

Bi hurbilketa hauek konbinatzea sinterizazio-tenperatura industrialak jeisteko egokia badirudi ere, hau ez da ikertu. Industria japoiarrak, bereziki, Nitrogeno-kopuru handiko altzairu lasterrezko aleazioak lortzeko nahiago du Berotako Trinkotze Isostatikoa erabiltzea, zein metodo garestiagoa den.

Europa da sinterizazio zuzenaren ikerkuntza eta garapenaren buru; hala nola, Maulik eta Price-k hutseko sinterizazioan eta Palma eta lag.-ek $N_2-H_2-CH_4$ -atmosferakoan egindako lanek zerau erakutsi dute, badagoela sinterizazio-tenperatura jeisterik, hasierako hautsari

1. INTRODUCCIÓN

La vía de la pulvimetalurgia mediante compactación en frío y sinterización en vacío ha facilitado la producción a forma definitiva de piezas de acero rápido -como herramientas, matrices y plaquitas- desde 1975, llevando a la pulvimetalurgia a alcanzar un apreciable cuota del mercado de los aceros convencionales obtenidos por tecnología de fusión y forja. Frente a la vía de Compactación Isostática en Caliente, la producción por sinterización directa también ofrece una ventaja económica, aunque resulta una microestructura más grosera. Los aceros rápidos de herramientas producidos por sinterización directa en vacío tienen unas respuestas semejantes a los tratamientos térmicos y unas propiedades mecánicas y de corte por lo menos equivalentes a las de los aceros rápidos de composición similar obtenidos por fusión y forja. Si la temperatura de sinterización en vacío de aceros rápidos pudiera ser reducida de su nivel habitual de más de 1240°C a 1150°C o menos, la actual sinterización en lotes de piezas de acero rápido podría ser reemplazada por sinterización continua en horno de cinta, lo que podría tener considerables beneficios metalúrgicos, tecnológicos y económicos.

Se están realizando dos aproximaciones a este objetivo: modificar la composición para producir aleaciones de aceros rápidos de herramientas con amplias ventanas de sinterización -rango de temperaturas a las cuales la densidad total es alcanzable- que se extiendan hasta 1150°C y sinterización en atmósferas ricas en nitrógeno, normalmente de aceros de composiciones comerciales. La primera aproximación la ha iniciado la Universidad de Bradford, mientras que la última fue iniciada en el CEIT. Se encontró que sinterizando en atmósfera de $N_2-H_2-CH_4$ en lugar de en vacío se pueden alcanzar significativas reducciones en la temperatura de sinterización de los aceros de herramientas. Se ha publicado la sinterización con éxito, por ejemplo, del T42 a la temperatura de 1180°C, frente a los 1235°C que se precisan para sinterizar en vacío.

Se cree que la reducción de la temperatura de sinterización está asociada a la influencia del nitrógeno disuelto en la temperatura de solidus del acero. La correlación entre sinterizabilidad y la línea de solidus, con el campo de γ +carburo+L del diagrama de fases, ha sido ya establecida en aceros rápidos convencionales y parece mantenerse cuando los carburos son reemplazados por carbonitruros. La presencia de nitrógeno también lleva a que el nivel de austenita residual tras sinterizar sea más alto que en el acero rápido correspondiente sinterizado en vacío, necesitando de temperaturas de revenido ventajosamente más altas para alcanzar el pico de dureza. Sin embargo, no todo el nitrógeno está en solución en la austenita durante la sinterización: los carburos primarios MC cambian a carbonitruros muy finos, ricos en vanadio, que son muy resistentes al engrosamiento durante la sobresinterización.

Sería oportuno combinar ambas aproximaciones para minimizar las temperaturas de sinterización industriales, combinación que, sin embargo parece no haber sido investigada. La industria japonesa, en particular, parece preferir la más costosa ruta de la Compactación Isostática en Caliente para producir aleaciones de acero rápido ricas en nitrógeno.

Karbonoa gehituz, adibidez. Hutsean $N_2-H_2-CH_4$ -atmosfera sinterizatutako altzairu lasterretan egindako lan batzuk, bestalde, propietate mekanikoen eta higadurarekiko erresistentziaren hobekuntza lortu dute beste gehikuntza batzuren bitartez, galdaketa eta forjaketaren bitartez lor ez daitezkeen konposaketak erabiliz.

Hobetutako propietate hauei esker, altzairu laster hauek CVD- edota PVD-ren bitartez estaltzeko oinarritzko material hobiak izan litzakete. Honen garrantzia erremintek ertzeko karga handiak jasaten dutenean (torlojo-bururen konformaketarako matrizeak, adibidez) ikusten da batez ere, estaldura lodiagoa behar bait dute. Baina oraingoz sinterizazio-tenperatura konbentzionalak behar dira (hau da, $1240^\circ C$ baino altuagoak), Cu-P gehikuntzak ez badira egiten, behintzat, eta hauek materiala ebaketarako ez-egokia bihurtzen dute.

Hauts-Metalurgiazko altzairu lasterrezko erremintak estaldura gogor hauek izateko oso egokiak dira, beren egitura homogenoagoarengatik, estaldu ondoren jasan behar duten tratamendu termikoetan altzairu konbentzionalak baino tamaina-aldaketa eta distortsio txikiagoak izaten bait dituzte. Estaldura CVD-z egiten da, oso geruza meheak lortuz. CVD-ren bidezko estaldurak (Titanio Nitruoa, Titanio Karburoa eta Titanio Karbonitruoak erabiltzen dira, bai geruza bakarrekoa bai anizkuna, lehenbizikoa erabiliagoa delarik) altzairu lasterrezko erreminta askoren portaera hobetzen du, adibidez, hotzetan tinkatzeko puntzoiena, matrizena, tutuentzako terrailena, formarako erremintena eta plakatxoen.

Azken hauek bereziki oso garrantzitsuak dira. Aspaldian ezagutzen da ebaketa-plakatxoen zenbait altzairu laster konbentzionalazko ebaketa-erreminten piezak ordezkatzeko ahalmena. Hain garrantzitsuak dira non erabiltzaile, produktzaile eta ikertzaileren arteko inkesta batetan zera agertu zen, hamarkada honen hasieran, altzairu lasterrez egin ahal zen metal-ebaketaren % 50 -a plakatxo hauekin egiten zela.

Smith eta lag.-ek garatutako ikerkuntzak hutsean sinterizatutako altzairu lasterrezko plakatxoak CVD-ren bidez TiN-z estaltzeak abiadura normaleko ebaketa-portaera hobetzen duela agertu zuten. TiN-zko estaldurek edota hauen modifikazioek (adibidez, (C,N)Ti, TiAlN), nahiz CVD-z nahiz PVD-z eginak, ez dituzte ebaketa-abiadura erabilgarriak handitzen, eta eten bat dago altzairu lasterrezko eta metal gogorrezko erreminten ebaketa-abiaduren artean.

Aluminazko (Al_2O_3) estaldurek metal gogorrezko erreminten ebaketa-portaera hobetzen dute. Honen arrazoiak, estaldura hauen egonkortasun kimikoa eta goi-tenperaturatan herdoiltze-erresistentziaz gain, tenperatura igotzean beren eroankortasun kimikoak jeitsi egiten direla dira.

Al_2O_3 -zko estaldurek ebaketa-abiadura handiagoak permititzen dituzte, eta altzairu laster eta metal gogorraren arteko bitartea beteko dutela espero da. Baina ebaketa-abiadura handiagoa dela eta tenperatura altuagotan egiten bada lana, oinarritzko materialek gogor-

Es Europa quien lidera la investigación y el desarrollo en sinterización directa y, por ejemplo, los trabajos realizados por Maulik y Price y por Palma y col. en aceros rápidos sinterizados en vacío y en atmósfera de $N_2-H_2-CH_4$, respectivamente, han mostrado que se pueden alcanzar mayores reducciones de la temperatura de sinterización por adición de carbono al polvo de partida. Trabajos en aceros rápidos sinterizados en vacío y en atmósfera de $N_2-H_2-CH_4$ han demostrado, por otra parte, que se pueden lograr mejoras en propiedades mecánicas y de resistencia al desgaste por medio de otras adiciones, llevando a nuevas composiciones no obtenibles por fusión y forja.

Potencialmente, estas propiedades mejoradas pudieran proveer de mejores soportes para recubrimientos duros depositados en herramientas de acero rápido por CVD o PVD. Esto podría ser especialmente útil allá donde dichas herramientas están sujetas a altas cargas de borde, por ejemplo, matrices para el conformado de cabezas de tornillo, y podrían facilitar los deseables incrementos en el espesor del recubrimiento. Sin embargo, por el momento se necesitan temperaturas de sinterización convencionales (es decir, por encima de $1240^\circ C$) a no ser que se hagan adiciones de Cu-P, que hacen el material inadecuado para su uso como herramienta de corte.

Las herramientas de acero rápido pulvimetalúrgico son, de hecho, especialmente apropiadas para su recubrimiento con finas capas de recubrimiento duro mediante procesos de CVD, pues, como resultado de su más uniforme estructura metalúrgica, son mucho menos susceptibles que los aceros de fusión y forja a cambios en tamaño y distorsión durante el imprescindible tratamiento térmico post-recubrimiento. La aplicación de recubrimientos por CVD, incluyendo nitruro de titanio, carburo de titanio y carbonitruro de titanio, tanto en forma mono como multicapa (siendo la primera la más aplicada) mejora considerablemente el comportamiento de un amplio rango de herramientas de aceros rápidos, incluyendo punzones de recalcar en frío, matrices, terrajas para tubos, herramientas de forma y plaquitas.

Estas últimas son de particular significancia. Hace tiempo que se reconoció la capacidad de las plaquitas de corte de reemplazar a ciertas piezas de herramientas de corte de acero rápido convencional. De hecho, tal es su importancia que en una encuesta entre usuarios, productores e investigadores de herramientas de corte se sugirió que, al principio de la presente década, el 50% de todo el corte de metal apropiado para ser realizado con herramientas de acero rápido se hacía con estas plaquitas.

La investigación desarrollada por Smith y col. ha mostrado que la aplicación de recubrimientos de CVD de TiN a plaquitas de acero rápido de herramientas pulvimetalúrgico sinterizado en vacío provoca una marcada mejora en su comportamiento en corte a velocidades normales. Ni los recubrimientos de TiN por CVD o PVD ni los de sus modificaciones (p.e. (C,N),Ti, TiAlN) facilitan el deseado incremento en las velocidades de corte para cubrir la discontinuidad existente entre las velocidades de corte de los aceros rápidos y las de las herramientas de metal duro.

Actualmente se reconoce que los recubrimientos de óxido de aluminio (Al_2O_3) mejoran el comportamiento en corte de las herramientas de metal duro. Esto se debe a su gran es-

ragoak izan behar dute, eta batez ere, iraoketarekiko erresistentzi handiagokoak. Nitrogenoz sinterizatutako altzairuak dira abantail hau ematen dutenak.

1.1 Potentzial ekonomikoa eta abantail industrialak

Hauts-Metalurgiaz lortutako altzairu lasterren abantailak ongi ezagunak dira gaur egun, eta arrakasta honen arrazoi orokorrak ulergarriak dira. Gradu batzuren prolema, aldiz, batez ere oso erabilia den M2-arena, hutsean sinterizatutako altzairu lasterrezko piezak ez-berregingarriak direla da. Hau labearen luzeran tenperatura desberdinak lortzen direlako gertatzen da, azpi- edo gain-sinterizatutako pieza-kopuru handi bat izaten delarik laberaldi bakoitzean. Akats hauek zuzentzeko metodoek, Berotako Trinkotze Isostatikoa edota sinterizatu ondorengo berotako konformaketa, alegia, materiala gareztitu egiten dute. Beraz, metodo honen bidez oso pieza onargarriak lortzen badira ere, materialaren prezio handia jasan dezaketen piezei mugatua dago. Honez gain, zati bero osoan tenperatura-kontrol zehatza duten hutseko labeen prezioa eta hauen erabilerarena oso altuak izanik, metodo honetaz lortutako materialek ezin izan diete merkatu-zati handiago bat hartu galdaketaz lortutako altzairu lasterre. Arazo hauek konpontzeko, "sinterizazio-bi-tartea" zabaldu behar da eta altzairu lasterren sinterizazio-tenperatura jeitsi.

Azken honi dagokionean, altzairu lasterren sinterizazio-tenperatura 1150°C-raino jeitsiko balitz Kupre- eta antzeko elementu-gehikuntzarik egin gabe (hauek ebaketa-portaera gaitzesten bait dute), altzairu lasterrezko piezak trinkotze eta labe jarraietan sinterizazioaz lortuko lirateke. Sinterizazio gas-atmosferen erabilerak konposaketa berriak, altzairu lastertzat har badaitezke ere, dituzten erremintak 1150°C-tan labe jarraietan sinterizatzeko bide berri bat irekitzen du. Lorpen bide berri hau erabiliz altzairu laster honetazko erremintek ohizko metodoaz lortu eta gero mekanizatutakoak ordezkatzeara permitituko luke, hain handia da kosteen murrizketa. Hau da, zehatz mehatz, gaur egun gertatzen dena Hauts-Metalurgiazko burdin-aleazioekin, eta Hauts-Metalurgiazko osagai estrukturalen industria hain konpetitiboa egiten duena.

Sinterizazio-prezioan gertatzen diren diferentziak faktore hauetan datzate:

1. Labearen produkzioa

Hutseko labea

Karga bat bider bakoitzean. Berotze-ziklo bat behar da karga tenperaturara berotu, tenperatura finkatutako denboran mantendu eta giro-tenperaturara hozteko deskargatzeko. Hauexek lirateke balio tipiko batzuk: 60 Kg.-eko edukina, 24 ordu berotzeko, ordu beteko sinterizazioa, 24 ordu hozteko.

Labe jarraia

Zinta bakoitzeko karga, 1 Kg/150 mm karrera. Zintaren abiadura, 150 mm/min., produkzioa: 60 Kg/o.

tabilidad química y resistencia a la oxidación a elevadas temperaturas y a que su conductividad térmica decrece con la temperatura.

Los recubrimientos de Al_2O_3 permitirían unas velocidades de corte mucho más elevadas y se prevé que puedan cubrir el "gap" entre aceros rápidos y metal duro. Ahora bien, el trabajo a más altas temperaturas como consecuencia de las mayores velocidades de corte exige de sustratos más duros y, sobre todo, más resistentes al revenido. Los aceros sinterizados en nitrógeno parecen ofrecer esta ventaja.

1.1 Potencial económico y beneficios industriales

Las ventajas de los aceros rápidos producidos por la ruta de la pulvimetalurgia están actualmente bien documentadas y las razones tecnológicas para su éxito se comprenden en términos generales. Un problema con algunos grados, sin embargo, particularmente con el muy utilizado convencionalmente M2, es la difícil reproducibilidad de las piezas de acero rápido sinterizado en vacío. Esto se debe a diferencias de temperatura a lo largo del horno, que hacen que se produzca una apreciable cantidad de piezas subsinterizadas o sobresinterizadas en cada lote. Los métodos para corregir estos defectos, como son la Compactación Isostática en Caliente o la deformación en caliente tras el proceso de sinterización, encarecen notablemente el material. Por lo tanto, aunque es posible producir piezas altamente aceptables por este método, está limitado a aplicaciones que puedan soportar alto coste de material. Además, el coste de capital de hornos de sinterización en vacío con control preciso de temperaturas sobre toda la zona caliente y su coste de operación son suficientemente altos como para impedir una penetración mucho mayor de productos de acero rápido pulvimetalúrgico en áreas actualmente dominadas por materiales de fusión y forja convencional. Estos problemas pueden ser resueltos ampliando la "ventana de sinterización" y reduciendo la temperatura de sinterización de los aceros rápidos, respectivamente.

Con respecto a esto último, si la temperatura de sinterización de los aceros rápidos pudiera ser reducida a un nivel tan bajo como 1150°C sin recurrir a adiciones como puede ser el cobre, que causan un drástico deterioro en el comportamiento en corte, las herramientas de acero rápido podrían ser producidas por compactación y sinterización en hornos continuos. La utilización de atmósferas gaseosas de sinterización ofrece una ruta potencial por la cual herramientas de nuevas composiciones, aunque todavía reconocibles como aceros rápidos, podrían ser exitosamente sinterizadas en un horno continuo a 1150°C . Este nuevo sistema de fabricación reduciría los costos a un nivel tal que llevaría a las susodichas herramientas de acero rápido a reemplazar las convencionalmente fundidas, forjadas y mecanizadas. Esta es exactamente la situación que actualmente se da con aleaciones férricas pulvimetalúrgicas convencionales y que hace a la industria de componentes estructurales pulvimetalúrgicos tan competitiva en costo.

2. Erabileraren kostea

Hutseko labea: 45 KW Potentzia.

Labe jarraia: 72 KW Potentzia, gasaren erabilera (Hidrogeno eta Nitrogenoa).

Labe hauen depreziazioa ahaztuz, sinterizatutako Kg. bakoitzeko kostea hutseko labean 10-20 bat bider labe jarraian sinterizatzearena da. Material- eta trinkotze-gastoak berdinak direnez, aurrezki nabaria dago koste totalen labe jarraiak erabiliz.

Abantail industrial eta ekonomiko hauek Nitrogeno-atmosferatan sinterizatutako altzairu lasterren produkzioari hutsekoan egindakoaren aurrean bakarrik dagozkio. Beste abantail bat, atmosferan sinterizatutako altzairu lasterren funtsezkoa dena hauxe da: sinterizatu ondorengo hondar-austenita kopurua handiagoa dela. Honek iraoketa-tenperaturak handiagoak izango direla esan nahi du. Beraz, gas-atmosferan sinterizatutako altzairu lasterrek erabilera-tenperatura altuagoak jasan ditzake hutsean sinterizatutakoak edo galdaketaz lortutakoak baino. Honez gain, mikroegitura uniformeagoa denez gero, atmosferan sinterizatutako altzairu lasterrezko erremintak oso egokiak dira material gogorrezko geruza mehez estaltzeko CVD-ren bidez. Estaldura hauek ebaketa-portaera egokia eta zailtasun handia behar duten aplikazioetan erabiltzeko onargarritasuna hobetuko lituzkete, egungo ahalmen ekonomiko eta industrialak izugarri zabalduz.

Momentu honetan, altzairu lasterrezko erreminten estaldura komertziala Titanioan oinarrituei mugatua dago, batez ere, Titanio nitruroa erabiltzen delarik. Estaldura hauek altzairu lasterrezko erreminten portaera (ebaketan ala ez) hobetzen dute, baina lehendabizikoaren kasuan, ebaketa-abiadura ohizkoetan edota altuxeetan bakarrik. Estaldura hauek ez dute, ordea, ebaketa-abiadura erabilgarria igo, nahi zen bezala, altzairu lasterrezko eta metal gogorrezko erreminten arteko bitartea beteaz. Abiadura-igoera hori alumina-estaldura berriek (Al_2O_3) lor dezaketela deritzo, ohizko abiaduretan ebaketa-portaera hobetuz gain.

Beraz, alumina-geruzaz estaldutako Hauts-Metalurgiazko erreminta berriek (merkeagoak direnak), ez lituzkete galdaketaz lortutako altzairu lasterrezko eta TiN-z estalitako altzairu lasterrezko ebaketa-erremintak bakarrik ordezkatu, baizik eta metal gogorrezkoak ere zenbait baldintzatan: hauen erabilera-abiadura txikienetan eta aldizkako ebaketan, alegia, metal gogorrezkoak hautsi egiten bait dira azken kasu honetan. Altzairu lasterrek metal gogorrek konparatuta duten zailtasun handiaren aplikazio bat abiadura handiko zura-ebaketarako altzairu lasterrezko erreminten merkatuan dago, erremintaren haustura katastrofikoaren beldurrik gabe lortuko bait dira gaur egun metal gogorra erabiliz bakarrik lor daitezkeen abiadura handiak.

Hauts-Metalurgiazko altzairu lasterrezko erreminten aldeko koste-diferentzia % 30-ekoa izan daitekeela uste da. Aluminak TiN-arekin konparatuta duen mikrogogortasun handia dela eta, aluminaz estaldutako erreminten portaera TiN-z estaldutakoena baino hobea izango da.

Las diferencias en el coste de sinterización se deben a los siguientes factores:

1. Producción del horno

Horno de vacío

Una carga cada vez. Se requiere un ciclo de calentamiento para calentar la carga a temperatura, mantener la temperatura durante el tiempo fijado y enfriar a temperatura ambiente para descarga. Valores típicos podrían ser: capacidad de 60 Kg, 24 horas de calentamiento, una hora de sinterización, 24 horas de enfriamiento.

Horno continuo

Carga por cinta típicamente de 1 Kg/150 mm de carrera. Velocidad de la cinta 150 mm/min., producción: 60 Kg/hr.

2. Costes de utilización

Horno de vacío: Potencia 45 KW.

Horno continuo: Potencia 72 KW, gasto de gas (hidrógeno y nitrógeno).

Ignorando la depreciación en estos hornos, el coste por Kg de sinterización en el horno de vacío es aproximadamente de 10 a 20 veces el de sinterización en horno continuo. Como los costes de material y de compactación son los mismos, hay un ahorro substancial en los costes totales usando hornos continuos.

Estas ventajas industriales y económicas hacen referencia únicamente a la producción de acero rápido de herramientas sinterizado en atmósfera de nitrógeno frente a la de vacío. Una ventaja añadida inherente a los aceros rápidos producidos por vía de sinterización en atmósfera es el mayor nivel de austenita retenida tras el sinterizado. Esto implica el uso de mayores temperaturas de revenido durante el tratamiento térmico. Por ello, el acero rápido sinterizado en atmósfera podría ser capaz de soportar mayores temperaturas de servicio que el sinterizado en vacío o que el convencional fundido y forjado. Además, gracias a su microestructura más uniforme, las herramientas de acero rápido sinterizado en atmósfera son especialmente apropiadas para su recubrimiento mediante finas capas de material duro por CVD. Estos recubrimientos mejorarían su comportamiento tanto en aplicaciones de corte como en aquéllas que precisan de alta tenacidad y por ello ampliarían considerablemente su actual potencial económico e industrial.

En este momento, el recubrimiento comercial de herramientas de acero rápido está limitado a los de base titanio, predominantemente, nitruro de titanio. Tales recubrimientos producen sustanciales mejoras tanto en comportamiento en corte como en no-corte de las herramientas de acero rápido, pero en el caso del primero, sólo a velocidades de corte convencionales y modestamente elevadas. Sin embargo, dichos recubrimientos no han facilitado el deseado incremento en la velocidad de corte utilizable para cubrir la discontinuidad existente entre herramientas de aceros rápido y de metal duro. Como resultado

Abantaila hauek ebaketa-erreminta hobetuei badagozkie ere, asoziatutako industriei ere ekarriko lizkiekete hobekuntzak. Adibidez, higaduran eta goi-tenperaturako korrosioan.

Bultzada handi bat jasan duen beste Hauts-Metalurgia arlo bat plastikoren laguntzaz injekzioz moldeatutako hauts metalikoena da. Garapenean dagoen teknologia honek matrizetan trinkotuz lortzerik ez dagoen osagai konplexuen Hauts-Metalurgiazko lorpena permititzen du. Teknika honen eremu bat tresneriarako altzairu lasterrezko osagai konplexuena da, zeintzuk injekziozko moldeaketaz eginak direnean ez duten operazio sekundarioen beharrik aldenik aldeneko zuloak, hozkak eta geometriak txirbilasleak izateko. Konfidantzazko osagai konplexuak sinterizatzeko ahalmenak osagai hauen kredibilitatea nabariki hobetuko luke.

Orokorrean, prozedura jarraiek kontrol hobegoa daukate eta, hortaz, lagungarria litzateke altzairu lasterrak labe jarraietan sinterizatu ahal izatea; horretarako 1150°C baino beherago sinterizatu beharko genituzke dentsitate osotara.

1.2 Lanaren justifikazioa eta deskribapena

CEIT-ean lehenago egindako ikerketetan T graduko zenbait altzairu lasterren N₂-H₂-CH₄-atmosfera-tako sinterizazioa aztertu da, bide honetako Sinterizazio-Temperatura Optimoa (STO) hutseko sinterizaziokoa baino apalagoa zela aurkituz; beraz, teknika hau egokia zirudien sinterizazio-tenperatura apalak lortzeko. M2-ean, berriz, alderantzizkoa gertatzen zen, gasean sinterizatzeko tenperatura hutsekoa baino altuxeagoa bait zen.

Portaera desberdin hau M graduko altzairuen berezkoa zen ala M2-arena bakarrik aztertu asmoz, lan hau M graduko bi altzairuren hutseko eta aipatutako atmosferako sinterizazioaren ikerkuntzan datza.

Ikerketa hau zenbait zatitan sailkatu da, aktibitate eta edukinen arabera: lehenbizi, konposaketa antzekoa zuten bi altzairuren sinterizazioa ikertu da, Px30 eta Px30S, konposaketa-desberdintasun bakarra Sufre-edukina zelarik; azkena mekanizagarritasun hobetutakoa zen. Gero, tratamendu termikoen aurreko portaera ikertu zen eta, azkenik, beren propietate mekanikoak.

Sinterizazioaren ikerkuntzan sinterizazio-denbora konstantea hartu zen, 60 minutuzkoa, aldagai hauek hartzen zirelarik kontutan:

- Temperatura.
- Sinterizazio-atmosfera (hutsea eta gas-nahasi industrialak, 90%N₂-9%H₂-1%CH₄).
- Karbono-edukina (grafito-gehikuntza).

de sus propiedades, se ha anticipado que el innovador uso de alúmina (Al_2O_3) como nuevo recubrimiento para herramientas de acero rápido podría facilitar este deseado incremento, además de mejorar el comportamiento en corte a velocidades convencionales. La aplicación de recubrimientos de alúmina a las nuevas herramientas pulvimetalúrgicas, de menor coste, podría por tanto llevar a que no sólo reemplazaran a las herramientas de corte de acero rápido convencional fundido y forjado y de acero rápido recubierto de TiN, sino también las herramientas de metal duro bajo ciertas condiciones: por ejemplo, a las más bajas velocidades de corte del rango de éstas y para aplicaciones de corte intermitente, donde tienden a fracturarse las de metal duro. Un beneficio adicional de la alta tenacidad de los aceros rápidos de herramientas comparados con el metal duro estará en el mercado de herramientas de acero rápido para corte de madera de alta velocidad, pues se podrán alcanzar sin riesgo de fallo catastrófico de la herramienta las altas velocidades actualmente sólo alcanzables con metal duro.

Se ha anticipado que la diferencia de coste en favor de las herramientas de acero rápido pulvimetalúrgico podría ser de hasta un 30%. La mayor microdureza de la alúmina comparada con el TiN llevaría también a que el comportamiento de las herramientas de acero pulvimetalúrgico con recubrimiento de alúmina fuera superior al de las recubiertas con TiN.

Aunque las ventajas pudieran estar específicamente dirigidas a herramientas de corte mejoradas, traerían también beneficios a las industrias asociadas. Se incluyen ejemplos de desgaste y corrosión a altas temperaturas.

Otro área de la pulvimetalurgia que viene recibiendo un gran impulso es el moldeo por inyección de polvos metálicos vehiculados mediante plásticos. Esta tecnología en desarrollo está haciendo posible la producción por pulvimetalurgia de componentes complejos que no son obtenibles por compactación de polvos metálicos en matrices. Un campo de actividad es el de los componentes complejos de acero rápido de herramientas, que cuando son producidos por moldeo por inyección, no necesitan de operaciones secundarias para proveer de agujeros pasantes, muescas y geometrías rompe-viruta. Una capacidad de sinterizar componentes complejos de confianza mejoraría grandemente la credibilidad de tales componentes en el mercado. Generalmente, procesos continuos llevan a mejor control del proceso y, por tanto, la producción de aceros rápidos de herramientas capaces de ser sinterizados a densidad total por debajo de 1150°C , permitiría el uso de hornos continuos.

1.2 Justificación y descripción del trabajo

En anteriores estudios realizados en el C.E.I.T. se ha investigado la sinterización en atmósfera gaseosa compuesta de $\text{N}_2\text{-H}_2\text{-CH}_4$ de diversos grados de aceros rápidos de tipo T, encontrándose que la Temperatura Óptima de Sinterización (TOS) era menor que la de los mismos aceros sinterizados en vacío y, por tanto, la técnica resultaba prometedora para conseguir bajas temperaturas de sinterizado. En cambio, en el M2 ocurría lo contrario, siendo la temperatura necesaria para sinterizar en gas algo mayor que la de vacío.

Tratamendu termikoei dagokienean, austenizazio- eta iraoketa-denborak konstanteak izan ziren (3 min. eta 60 min. bakoitzak), eta honako aldagai hauek kontsideratu ziren:

- Austenizazio eta Iraoketa-tenperatura.
- Sinterizazio-atmosfera (aurreko sailekoak).
- Px30-aren kasuan, tenplaketa-ingurunea (airetan, oliotan edo uretan).

Azkenik, ondoko aldagai hauen eragina ikertu zen portaera mekanikoan:

- Sinterizazio-atmosfera (hutsea eta atmosfera industriala).
- Iraoketa-tenperatura.
- Sinterizatu ondorengo Berotan Trinkotze Isostatiko-zikloaren ezarketa, Px30-aren hondar-hutsuneak itxi asmoz.

Ezaugarri hauek ebaluatu ziren:

Sinterizazioan

- Sinterizatu ondorengo dentsitatea.
- Hondar-austenita frakzio-bolumetrikoa STO-an.
- Ale-tamaina tenperatura desberdinetan.
- Karburu eta karbonitruo primarioen mota, konposaketa, tamaina eta frakzio bolumetrikoa.
- Karbono-, Nitrogeno- eta Oxigeno-edukin totalak STO-an sinterizatu baino lehen eta ondoren.

Tratamendu Termikoetan

- Tenplaketa- eta iraoketa-gogortasunak tratamendu bakoitzeko.
- Hondar-austenita kopurua, tratamendu bakoitzeko.
- Tenplaketa ondorengo ale-tamaina.
- Karburu-tamaina eta -kopurua.

Propietate Mekanikoetan

- Eragindako tratamendu termikoaren efektibitatearen kontrola: saiatuko ziren probeten gogortasuna eta hondar-austenita kopurua.
- Zailtasuna (zilindro motzeko Barker-saiakuntza).
- Young-modulua.
- Elastikotasun-muga.
- Hausturarekiko erresistentzia eta deformazioa, azken guzti hauek lau puntutako makurduran.
- Hausturaren ebaluazio kualitatiboa: mota, ezaugarriak eta hasiera-tokia eta akats eragilea, eta makurdura-probeten trakzio-gainazalaren itxura.

Por ello, y a fin de comprobar si este diferente comportamiento era característica propia de los grados M o únicamente lo era del M2, este trabajo se dirigió a la investigación de la sinterización de dos aceros de tipo M en vacío y en atmósfera gaseosa de $N_2-H_2-CH_4$.

Para ello, este estudio se ha dividido en una serie de conjuntos de actividades y contenidos: en primer lugar se ha estudiado la sinterización de dos aceros de composición semejante, el Px30 y el Px30S, diferenciados únicamente en su contenido en azufre, siendo este último de maquinabilidad mejorada; posteriormente se estudió su comportamiento frente a los tratamientos térmicos, y, finalmente, sus propiedades mecánicas.

En el estudio de la sinterización se tomó el tiempo de sinterización constante e igual a 60 min., considerándose las siguientes variables:

- Temperatura.
- Atmósfera de sinterización (vacío y mezcla gaseosa industrial de 90% N_2 -9% H_2 -1% CH_4).
- Contenido en carbono (adición de grafito).

En lo referente a los tratamientos térmicos, con tiempos constantes de austenización (3 min.) y de revenido (triple, de 60 min. cada uno), se tuvo en cuenta:

- Temperatura de austenización y de revenido.
- Atmósfera de sinterización (las mismas que en el apartado anterior).
- En el caso del Px30, medio de temple (aire, aceite o agua).

Por último, se estudió la influencia en el comportamiento mecánico de variables como

- Atmósfera de sinterización (vacío y mezcla industrial).
- Temperatura de revenido.
- Aplicación de un ciclo de Compactación Isostática en Caliente post-sinterizado a fin de cerrar la posible porosidad residual en el acero Px30.

Se evaluaron las siguientes características:

Sinterización

- Densidad después de sinterizar.
- Fracción en volumen de austenita retenida a la TOS.
- Tamaño de grano austenítico a distintas temperaturas.
- Tipo, composición, tamaño y fracción en volumen de carburos primarios y carbonitruros.
